

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### Vitoria-Gasteizen enpresak sortzeko eta finkatzeko dirulaguntzak emateko 2024ko deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2024ko martxoaren 27an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizen enpresak sortzeko eta finkatzeko dirulaguntzak emateko 2024ko deialdi publikoa eta hori arautuko duten oinarriak.

Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Erabaki horrek administrazio-bidea agortzen du, eta berorren kontra zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsioak aurkeztu hori berriaz edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsio baliatzeko aukera.

Deialdiaren berriazko oinarri arautzaileen publikotasunaren inguruan araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

#### Arau esparrua

Deialdi hau dagozkion oinarriek eta honako arau hauek arautuko dute:

— Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorra (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean.

Araudi horren lehen artikulua xedatzen duenez, ordenantzaren “xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea”.

– Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2022-2024), 2022ko urtarrilaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarrean onetsia.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua (uztailaren 29ko 887/2006 Errege Dekretua).

– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena.

### **1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak**

Laguntza hauek indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) aurreikus-ten dira, zeina 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek.

Planak dirulaguntza-ildo honen barruan kokatzen ditu laguntzak: “Enpresak sustatzeko laguntzak” ( 08\_04\_v02 fitxa).

### **2. oinarria. Deialdiaren xedea**

Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortu eta finkatu daitezela sustatzera bideratutako laguntzak emateko —elkarren arteko lehia baliatuz— baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea.

Laguntza ekonomiko hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta konkurrentzia-erregi-menean emango dira, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 19.1 arti-kuluarekin eta III. kapituluarekin bat etorriz (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

Berriki sortutako enpresek —Ekonomia-jardueren gaineko Zergan 2019ko uztailaren 1.az geroztik alta emandakoak— gauzaten dituzten proiektu eta inbertsioetarako emango dira laguntzak deialdi honetan.

Enpresa eta urte bakoitzeko dossier bakarra izapidetuko da.

### **3. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak**

2023ko maiatzaren 31tik 2024ko ekainaren 28ra bitarteko aldiari —biak barne— dagozkion fakturak joko dira dirulaguntzaren xede izan daitezkeen gastutzat, kontzeptu hauei dagozkienak:

– Eratu eta abian jartzetik sortutako gastuak: erregistroa; notarioa (sozietatea eratzeko eskriturak eta estatutuak idazteko), bazkideen ituna, enpresa sortzeko aholkularitza, Udalaren jarduera-lizentzia lortzeko proiektu teknikoak, merkatuaren eta proiektuaren bideragarritasuna-ren azterketa.

– Komunikazio-gastuak: irudi korporatiboa diseinatu eta garatzea, webgunea eta sare sozialak sortzea, betiere gastu errepikakorrek ez badira, mantentzea ez baitago barne.

– Prototipoen diseinuarekin eta fabrikazioarekin lotutako gastuak, baita jabetza industrial eta izen komertzialak babesteko gastuak ere (patenteak eskatzea eta markak erregistratzea).

– Kalitatea, ingurumena. berdintasun-planak, mugikortasun-planak, energia nahiz erantzukizun soziala kudeatzeko sistemak ezarri eta horien ziurtapena lortzetik sortutako gastuak, komunzki onartzen diren estandar edo arauen arabera.

– Enpresa sortu eta finkatzeko beharrezko diren eta enpresaren jarduera garatzearekin zuzenean lotuta dauden aktibo finkoko elementuetako inbertsioak:

- Proiektuari lotutako makinak, tresnak eta bestelako ekipamendu-ondasunak.
- Altzariak.
- Informatika-tresnak eta aplikazioak.

Diruz lagun daitekeen gastuetakoren bat 15.000,00 eurotik gorakoa bada (BEZik gabe), edo hornitzaileak dirulaguntza eskatzen duen enpresarekin loturarik badu, efizientzia- eta ekonomia-irizpideekin justifikatu beharko du onuradunak enpresa hornitzailearen hautaketa. "Lortura duen enpresa" kontzeptuari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42.3 artikuluko definizioa aintzat hartuko da.

Aurkezten diren proiektuek oinarrien arabera diruz lagundu daitekeen gutxieneko inbertsioa -5.000,00 euro (BEZik gabe)- izan beharko dute.

Ibilgetu materiala leasing bidez erosten bada, diruz lagun daitekeen aldian ordaindutako kuotetarako eman ahalko da dirulaguntza, interesak eta gastuak alde batera utzita.

Gorago adierazitako datetan behar bezala jaulkitako fakturen bitartez egiaztatu beharko dira egindako inbertsioak.

2024ko uztailaren 31 baino lehen behar bezala justifikatuta dauden ordainketek bakarrik jaso ahal izango dute dirulaguntza.

#### **4. oinarria. Dirulaguntzaren xede izango ez direnak**

Oro har, honako hauek ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko:

– Proiektuak ezartzeko enpresak bere fasea eta gain hartutako material-, prestakuntza- eta langile-gastuak.

– Aktibo finkoko inbertsio hauek: aktibo ukiezinak (jabetza industrial eta informatika softwarea izan ezik), eskualdatze-eskubideak, frankizia-eskubideak, lursailak, eraikuntza- eta eraberritze-lanak, eraikuntza- eta instalazio-proiektuak (elektrizitatea, segurtasuna, klimatizazioa, ura...), apaingarriak, garraio-elementuak, telebistak, telefono-terminalak eta antzekoak.

– Enpresaren kapital sozialari egindako ekarpenak.

– Jarduera berriari lotutako bigarren eskuko ekipoak eta makinak erostea, baldin eta horiek erosteko beste laguntza batzuk jaso izan badira, edo haien prezioak merkatuko balioa gainditzen edo berdintzen badute.

– Alokairura bideratutako aktibo finkoetako inbertsioak.

– Lehengaiak, produktu bukatuak eta enpresak erosi dituen ondasunak, eraldatuta edo transformaziorik gabe saltzeko.

– Enpresaren ohiko funtzionamendutik eratorritako gastuak edo haren jarduera iraunkorra edo aldizkakoari dagozkionak: bulegoko materiala, mantentze-lanak, piezak konpondu edo ordeztzea, tresnak berritzea, promozio ekitaldiak, bidaiak, publizitatea, domeinuak berritzea, hosting-jarduerak (ostatatzea), community managerra, otorduak, hornidurak, alokairuak eta antzekoak.

– Patenteak, erabilgarritasun-modeloak eta diseinu industrialak berritu edo aldatzeko gastuak.

– Adierazitako jarduerari dagozkien zerga edota tasak, gainordainak eta administrazio-zigorak.

#### **5. oinarria. Dirulaguntzak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea**

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazita, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazioa ere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

#### **6. oinarria. Onuradunen betekizunak**

Merkataritza-jardueraren bat duten enpresa pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, betekizun hauek betetzen badituzte:

- a. Helbide soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea.
- b. Diruz laguntzekoak diren jarduerak Vitoria-Gasteizko udalerriko lantoki batean zuzenean garatzea.
- c. Berariaz geratuko dira kanpo jarduera nagusia ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe hauetakoren batean sartuta duten enpresak:
  - 64-67 Txikizkako merkataritza eta elikadura zerbitzuak.
  - 681 Hotel eta moteletako ostatu-zerbitzua.
  - 682 Hotel eta pentsioetako ostatu-zerbitzua.
  - 683 Ostatu eta apopilo-etxeetako ostatu-zerbitzua.
  - 684 Hotel eta apartamentuetako ostatu-zerbitzua.
  - 691.1 Etxeko tresna elektrikoen konponketa.
  - 691.9 Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa (BISG).
  - 755 Bidaia-agentziak.
  - 969.1 Dantzaleku eta diskotekak.
  - 971.3 Arropak pasaratzea eta konpontzea.
  - 972 Ile-apaindegi eta edertasun zerbitzuak.

Ekonomia-jardueren gaineko zergan dagokien epigrafean izena emanda egon beharko dute enpresek laguntza-eskabidea egiten duten egunean, eta horrela jarraitu hura tramitatzeko prozesu osoan —dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz dirulaguntza ordaintzen denean—.

Enpresa Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bi epigrafe edo gehiagotan alta emanda badago, onuraduntzat joko da baldin eta jarduera nagusia diruz lagun daitezkeen multzo edo atale-tako baten barruan badago eta egiten dituen ekintzak jarduera horri badagozkie. Oro har, jarduera nagusia zein den zehazteko, horretarako erabiltzen den azalera erabilgarria hartuko da aintzat.

d. Enpresa txikia izateko bete beharreko betekizunak betetzea (50 soldatapeko baino gutxiago, eta 10 milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra, urtean).

e. Lehendik ziren —5 urtetik gorako antzintasuna— enpresen izena edo forma juridikoa aldatze hutsetik sortutako enpresa berriak ez izatea.

f. Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresekin loturarik ez izatea, edo haiek partaidetza nagusia ez izatea enpresan.

g. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria- Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.

h. Nolanahi ere, baztertuta geratuko dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkarteak, lanbide elkargoak eta abar).

## 7. oinarria. Baliabide ekonomikoak

“Enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntzak” izeneko 08.21.4331.489.67 partidaren kontura finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak: 188.714,01 euro.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan xedatutakoaren haritik, zuzkidura hori handitzerik izango da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi-ordezkararen erabakia dela medio, baldin eta udal sail horrek enpresei zuzendurik egiten dituen deialdietakoren batean soberako krediturik badago, eta interes publiko, ekonomiko eta sozialeko arrazoiak tarteko.

Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan aski kreditu izan beharko du erabilgarri eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

## 8. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publikok edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

Nolanahi ere, eskuratzen diren dirulaguntzen/laguntzen baturak ezingo du gainditu dena delako kontzeptuaren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza edo baliabiderekin batera.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

## 9. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkezteko epea eta bideak

9.1. Oinarri hauek 2024ko maiatzaren 15ean sartuko dira indarrean; alde zuzenetik laburpen-iragarkia Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean gehituko da, eta ALHAOn argitaratuko.

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko maiatzaren 15ean hasiko da, eta 2024ko ekainaren 28an bukatuko.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektronikoa bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, hartara eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko behar diren abisuak helarazteko, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

9.2. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

– Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (<https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko dira, erregistro elektronikoen bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da.

– Aurrez aurre:

– Udalaren bulego teknikoetan (Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30 - 14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) webgunean).

– Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) webgunean).

Aurrez aurre arreta emateko gunean dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistematik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89. artikuluan xedatutakoaren arabera (16.4 b artikulua), eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

9.3. Interesdunek honako eskabide hau aurkeztu beharko dute, (oinarrietako I. eranskineko eredu) Interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

9.4. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

#### **10. oinarria. Nahitaezko agiriak**

10.1. Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza eskabideei:

– Eskabide-orria eta zinpeko aitorpena. (I. eranskina).

Vitoria-Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez, ofizioz begiratu da pertsona edo enpresa eskatzailea egunean dagoen.

Enpresa eskatzaileak espresuki eman ahalko du baimena (I. eranskina) Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko; hala egin ezean, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du. Zergak aipatutakoez besteko administrazio batean ordaindu behar badira, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

– Aurkeztutako inbertsioen laukia: (II. eranskina).

– Pertsona fisikoek: nortasun-agiriaren fotokopia.

– Pertsona juridikoek:

IFKren kopia.

Enpresa eratzeko eskrituren kopia.

Ordezkaritza-ahalmenaren kopia.

Ordezkaritza-ahalmena duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

– Soldatapeko langilerik izanez gero, azken hilabeteko TC2.

– Enpresak soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo ordainketaren ordainagiria.

– Enpresa proiektua, hauek barne: jardueraren datuak azaltzen dituen txostena, bazkideen curriculumak eta ekonomi eta merkataritza bideragarritasunaren azterlana. Behar izanez gero, Espainiako Patente eta Marken Bulegoan (OEPM) marka erregistratzeko eskabidea.

– Fakturen kopiak.

– Aurkeztutako fakturen ordainketaren banku-egiaztagiria.

– Justifikazio-kontu arruntaren eranskina betetzea (ikus eranskinak).

– Leasing kontratuaren kopia, ibilgetua formula horren bitartez erosi bada, baita kuoten kopia ere.

Ordaindu izanaren banku-egiaztagiria aurkezteko epea 2024ko uztailaren 31n bukatuko da.

10.2. Enpresa eskatzaileak ez badu esleitu Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

#### **11. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea**

Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 20.4 artikulua ildotik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen dituzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

## 12. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

12.1 Dirulaguntza hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta konkurrentzia-erregimenean emango dira, hau da, dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzearen, deialdian alde aurretik ezarritako balioespen-irizpideen arabera Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren III. kapituluarekin eta 19.1 artikularekin bat etorritik.

12.2. Instrukzioa eta ebazpena.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Balioespen batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

– Lehendakaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendaria edo hark ordeko izendatzen duena.

– Epaimahaikideak: Enpresen Zerbitzuko burua eta Merkataritza Zerbitzuko burua.

– Idazkari teknikoa: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat, ahotsa izango duena, baina ez botorik.

Eskabideak jaso eta betekizunak betetzen diren egiaztatu ondoren tramitatzea onartzen delarik, txosten teknikoa egingo da, eta, balorazio-batzorde teknikoak proposamena aurretik eginda, Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu eskabideak.

ALHAOren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren iragarkiren bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren irizpideei jarraituz.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, erabakia hartu duen organoari zuzenduta, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik.

## 13. oinarria. Ebazteko epea

Prozedura ebazpena emateko eta argitaratzeko epea sei hilabetekoa izango da gehienez.

Oinarri hauek indarrean jartzen diren egunaren biharamunetik kontatuko da epe hori.

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsizat jo ahalko dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

## 14. oinarria. Onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzailletza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

- Udal dirulaguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik eskatu edota jasoz gero, udalari jakinaraztea.

- Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, udalari jakinaraztea.

- Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

- Dirulaguntza eman ondoren, norako eman den, horretara bideratzea ekonomi jarduera gutxienez bi urtez. Adierazitako epe hori igaro aurretik jarduera eten egiten bada, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio Udalari, eta emandako dirulaguntza osorik edo horren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik 2 urteko epe hori —dirulaguntza eman zen egunetik kontatuta— betetzeko falta den denborarekiko proportzioan. Salbuespen gisa, ez da eskatuko jaso den dirulaguntza itzultzeko negozioa ixteko arrazoa jabearen gaixotasun larria edo heriotza bada.

- Diruz lagundutako aktiboak gutxienez bi urtez edukitzea enpresan, erosten diren egunetik (fakturan ageri den datatik).

### 15. oinarria. Balioespen-irizpideak

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	
<b>1. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa</b>	<b>gehienez 30 puntu</b>
Proiektuaren definizioa eta garapen-maila balioetsiko dira atal honetan, alderdi hauek kontuan harturik: talde sustatzailearen konpromiso-maila; bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa; proiektuaren kalitatea, analisia eta garapena, eta eskatutako agiriak hasieratik sartzea	
<b>2. Proiektuaren berrikuntza maila eta enpresa-potentziala</b>	<b>gehienez 20 puntu</b>
Enpresa berriaren originaltasuna eta bereizketa hartuko dira kontuan, baita merkatuaren edo jarduera-sektorearen egungo egoerarekiko berrikuntza maila ere Enpresak bere jardueran gizartearen, iraunkortasunaren eta ingurumena babestearen arloko irizpideak kontuan hartzea ere balioetsiko da	
<b>3. Talde sustatzailea eta sortutako enplegua</b>	<b>gehienez 15 puntu</b>
Sustatzaileen prestakuntza eta esperientzia balioetsiko dira atal honetan, baita sortutako enplegua ere	
<b>4. Parekotasun irizpidea</b>	<b>5 puntu</b>
Emakume enpresaburuak, edo enpresak, edozein forma juridiko dutela ere, baldin eta bazkideen % 40 gutxienez emakumeak badira eta beren jarduera honako sektore hauetan egiten badute: industria, eraikuntza, garraioa edo nekazaritza	
<b>5. Egindako inbertsioa (diruz lagun daitekeena)</b>	<b>gehienez 20 puntu</b>
Enpresa abian jartzeko egindako inbertsioak balioetsiko dira atal honetan, diruz laguntzeko modukoak direlarik	
<b>6. Enpresa eskatzailearen antzinasuna (EJZko datuen arabera)</b>	<b>gehienez 10 puntu</b>
Deialdi hau argitaratzen den egunean EJZn 2 urtetik beherako antzinasuna duten enpresek 10 puntu lortuko dituzte; gainerakoek, 0	
<b>Gehieneko puntuazioa</b>	<b>100 puntu</b>

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 20.m artikulua betez, genero-ikuspegia txertatzeko ekintzak sartu dira balorazio-irizpideen artean, eta baremo osoaren ehuneko 5eko balorazioa dute.

### 16. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

16.1. Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 50 puntu lortu beharko ditu, arestian aipatutako irizpide eta puntuazioei jarraituz.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik. Hortaz, alderatu egingo dira aurkezten diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, aurreko oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

16.2. Eskabide guztiak balioetsi ondoren, honela kalkulatu da dirulaguntzaren portzentajea, baldin badagokie.

Puntuaziorik handiena lortzen dutenek dirulaguntzaren gehieneko portzentajea (ehuneko 40) eskuratuko dute.

Dirulaguntza jasotzeko gutxieneko puntuazioa dutenek dirulaguntzaren gutxieneko portzentajea jasoko dute (ehuneko 20).

Puntuaziorik handienaren eta gutxienekoaren arteko gainerako proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie dirulaguntzaren ehunekoa kalkulatzeko.

16.3. Guztira lortutako puntuazio horren arabera ezartzen den hurrenkerari jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 15 oinarriko (balioespen-irizpideak) 1. atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, 2. atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat. Berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideari Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistroan sarrera noiz eman zain kontuan izanik.

Baldin eta erabilgarri dagoen saldoa ez bada aski kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua emango zaio horri.

Urteko gehieneko dirulaguntza 8.000,00 eurokoa izango da, enpresa bakoitzeko.

Aurreko deialdietan laguntza bera jasoa izan ahalko du eskabidea egiten duen enpresak, baldin eta lehendik emandako laguntzaren zenbatekoa 15.000,00 eurotik gorakoa ez bada.

Proiektua diruz lagundu ahal izateko, gutxienez 1.000,00 euroko dirulaguntza jaso beharko du, arestian adierazitako irizpideen arabera.

#### **17. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea**

Dena batera ordainduko da laguntza, deialdia ebatzi ondoren, eta 19. oinarrian (justifikatzeko epea eta modua) adierazitako moduan justifikatu ondoren.

Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, edo zordun gertatzen bada, dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delako.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

#### **18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea**

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen dituen funtsezko edozein aldaketak ebazpena aldatzea eragin dezake, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan eta dirulaguntzei buruzko udal ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

#### **19. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua**

Egindako inbertsioak (betiere 3. oinarrian jasotako kontzeptuenak badira) behar bezala emandako fakturen bidez egiaztatuko dira, 2023ko maiatzaren 31tik 2024ko ekainaren 28ra bitartean, biak barne.

Justifikazioa justifikazio-kontu arruntaren bidez egingo da, non, gutxienez eta oro har, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 33. artikuluan zerrendatutako dokumentuak jasoko baitira. Horretarako, justifikazio-kontu arruntaren eranskina bete beharko da (ikus eranskinak).

Justifikatzeko epea bukatzen delarik egindako gastuen zati bat baino ordaindu ez bada, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, kobratzeko eskubidea galtzeari dagokionez.

Diruz laguntzeko aurkeztutako inbertsioen fakturak euroa ez den beste moneta batean badaude, interesdunak zenbatekoa eurotan adierazi beharko du, faktura egin zen egunean Europako Banku Zentralak adierazitako kanbio-tasaren arabera.

Ez da onartuko enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi identifikatzeko gutxieneko datuak —zenbatekoa, ordainketaren data, kontzeptua, ordaintzailea eta onuraduna— jasotzen ez dituen banku-egiaztagiririk. Aurkeztutako egiaztagiria osatutzat jotzen ez bada, banku-entitateak ontzat eman edo zigila dezala eskatu ahal izango da.

2024ko uztailaren 31n bukatuko da ordainketa-egiaztagiriak aurkezteko epea.

## 20. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahal izango ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote pertsona onuradunek. Horretaz gain, Udaleko Kontu Hartzailera Nagusiaren eskumena da Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

## 21. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Deialdi honetan adierazten diren betebeharrak betetzen ez badira, justifikazioa falta bada edo hori nahikoa ez bada, laguntza itzularazteko arrazoi izango da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan itzuli beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada.

Halaber, dirulaguntzei buruzko ordenantza Orokorren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzultzeko kausei, preskripzioari, itzultzeko betebeharra duten pertsoneri eta itzulketa-prozedurari dagokienez.

## 22. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakartako printzipioak: Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Horrela, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, hitzarmena sinatzen duen entitatearen proiektuak bat egingo du Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

Hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

— Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala txertatzeko konpromisoa, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuz; generoaren, klase sozialaren, jatorri kulturalaren, administrazio-egoeraren, adinaren edo dibertsitate funtzionalaren arabera desberdintasunak agerian uztera edo arintzera bideratutako helburu eta jarduketa espezifikoak txertatuz, eta ekintza positiboak aurreikusiz.

— Generoa kontuan hartzerakoan, pertsona guztiak emakume edo gizon heterosexualak direla ziurtzat ez jotzeko konpromisoa —zisheteronormatibitatea—, ezta familia guztiak nuklearrak direla ere. Orientazio sexuala eta genero-identitatea tratatzerakoan, patologiazioa, biktimismoa eta pinkwashinga saihesteko konpromisoa.

– Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexua/generoa aldagaia sistematikoki txertatzeko konpromisoa –emakumea/gizona/ez-binarioa edo entitateak egokitzat jotzen duen beste forma bat–.

– Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eta inklusiboa egiteko konpromisoa, pertsonak edo pertsona-taldeak bidezko modu batean irudikatzeko, generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriren arabera rol eta estereotipoak indartu gabe.

### 23. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero –norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu–, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

Pertsona onuradunak adierazten du betetzen dituela datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia eta, bereziki, bere fitxategiei dagozkien segurtasun-neurriak.

Gainera, datu horiei Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako segurtasun-neurriak aplikatzeko konpromisoa hartzen du.

Agiriak.

ESKABIDE-ORRIA	
I. eranskina	<a href="https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/96/57/59657.pdf">https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/96/57/59657.pdf</a>
II. eranskina	<a href="https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/14/35/91435.pdf">https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/14/35/91435.pdf</a>
Justifikazioari buruzko eranskina	Justifikazioko kontu arrunta
	<a href="https://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones">https://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones</a>

Vitoria-Gasteizen, 2024ko apirilaren 3an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*  
**JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ**